



EKS (Egiazatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	15706333314342341542
Agiri hau egoitza elektronikoan egiaztatu dezakezu, EKSa sartuz	https://sede.ararteko.eus/baliozkotu
Puede validar este documento en la sede electrónica introduciendo el CSV	https://sede.ararteko.eus/validacion

Arartekoaren 2025R-4155-24 Ebazpena, 2025eko ekainaren 4koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailari gomendatzen dio susta dezala Euskadiko angularen arrantzaren erregulazioaren berrikuspena, Europar Batasuneko zuzenbidetik eratorritako aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurrietara egokitzeko.

Aurrekariak

1. Pertsona batek, Asociación Plataforma de Defensa Medio Ambiental-Mutriku Natur Taldearen ordezkari gisa, Arartekora jo zuen adierazteko ez zegoela ados 77/2024 Dekretuarekin ([77/2024 Dekretua](#), [ekainaren 18koa](#), [Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautzekoa eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzekoa](#) (aurrerantzean, 77/2024 Dekretua).

Elkarteak planteatzen zuen 77/2024 Dekretuak, bere balorazioan, aingiraren arrantza profesionala arautu zuela, bere fase gaztean angula gisa ezagutzen dena 12 zentimetrotik beherako tamaina duenean, aingiraren kontserbazio-egoera kritikoaren egoeratik eratorritako betebeharrak kontuan hartu gabe. Aingiraren kontserbazio-egoera kritikoa nazioarteko erakunde batzuek onartu zuten, hala nola Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Kontseiluak (CIEM). Horrek gomendatu izan zuen hilkortasun antropogenikoa zerotik ahalik eta gertuen mantentzea, eta haren murrizketak Europar Batasuneko zuzenbideak jaso zituen, zeinak haren aisialdiko arrantza debekatuko baitzuen, haren arrantza profesionala muga batzuekin soilik mantentzea ahalbidetuz.

Elkartea ez zegoen ados angularen arrantzaren erregulazio horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoan ez zegoen arrantza profesionalaren modalitate bat sartzen zuelako; izan ere, ordura arte, angularen arrantza aisialdirako baino ez zen baimendu.

Zehazki, elkarteak planteatzen zuen erregulazio hori ez zettorrela bat Kontseiluaren 2007ko irailaren 18ko 1100/2007 (EE) Erregelamendutik eratorritako betebeharrekin (erregelamendu horrek aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurriak ezartzen zituen), ez eta Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 2023/194 (EB) Erregelamendutik eta Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 10eko 2024/257 (EB) Erregelamendutik eratorritako betebeharrekin ere (horiek haren arrantzarako aukerak mugatzen zituzten).



Bestalde, elkarteak alegatzen zuen dekretu-proiektua izapidetzen ari zen bitartean Eusko Jaurlaritzak ez ziola eman angularen arrantza profesionala bermatzen zuten txosten juridiko eta zientifikoei buruz eskatutako informazioa, aingiren harrapaketak ahalik eta gehien mugatzea sustatzen zuten irizpide zientifikoaren aurka.

Era berean, elkarteak zalantzan jartzen zuen 77/2024 Dekretuak pertsonen kolektibo jakin batzuei angularak arrantzatzeko lizentziak emateko lehentasunak ezartzeko araututako irizpideak ez justifikatzea.

2. Arartekoan aurkeztutako kexan, elkarteak gai horren inguruan alde aurretik Eusko Jaurlaritzan egindako jarduera hauek aipatzen zituen:

. 2023ko irailaren 12an, elkarteak Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatu zion arrantza profesionalaren erregulazioa eta 77/2024 Dekretuaren proiektuan aurreikusitako lizentziak emateko prozedura justifikatzen zuten txosten zientifiko eta juridikoetarako irispidea.

. 2023ko urriaren 9an, elkarteak alegazio idazki bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan, 77/2024 Dekretuaren proiektua jendaurrean jartzeko izapidetan.

. 2023ko urriaren 9an, elkarteak Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzari eskatu zion neurriak hartzeko Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) angularen arrantza saihesteko espezie horren kontserbazio-egoera ona lortu arte; eta, era berean, espezie hori Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartzeko eskatu zuen.

. 2024ko apirilaren 15ean, elkarteak bigarren alegazio-idazki bat aurkeztu zuen. Bertan, aingira Europar Batasunean egoera larrian zegoenez, izapidetzen ari zen dekretu-proiektua indarrrik gabe uztea proposatu zuen. Era berean, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren esku-hartzea eskatu zuen berriro, angularen arrantza EAEn saihesteko neurriak hartzeko, espezie horren kontserbazio-egoera kritikoa zela-eta.

. 2024ko ekainaren 28an, Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak 77/2024 Dekretua onetsi zuen.



- . 2024ko urriaren 3an, Arrantza eta Akuikultura zuzendariak [2024ko irailaren 24ko Ebazpena](#) (aurrerantzean, Ebazpena) onetsi zuen, EAEko 2024-2025eko denboraldirako angularen arrantza profesionalerako lizentzia-eskabideak aurkezteko epea ezarri zuena.
 - . 2024ko urriaren 4an, elkarteak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen aipatutako ebazpenaren aurka, hura eta 77/2024 Dekretua bera berrikusteko eskatuz, espezie horren arrantza profesionala ahalbidetzeko justifikazio zientifiko, sozial eta ekonomiko egokirik ez zegoela iritzita. Ondorio horietarako, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak berak 20/2024 irizpenean dekretu-proiektuari egindako eragozpenak aipatu zituen.
 - . 2024ko urriaren 29an, elkarteak dekretua onartzeko espedientea osatzen zuten dokumentu guztiak eskuratzeko eskatu zuen.
 - . 2024ko azaroaren 19an, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak ezetsi egin zuen jarritako gora jotzeko errekurtsua. Ebazpenak erregulazio horren egokitasuna justifikatzen zuen AZTI itsas ingurunean espezializatutako zentro zientifiko eta teknologikoak EAEko aingiraren ebaluazioari (2021) buruz egindako txostenetan, eta zelata-arrantzari buruz egindakoetan; baita "SEGPEAQ 2023 Anguila, Programa Comunitario de Recopilación de Datos de Pesquerías" txostenean ere.
3. Kexa hori izapidetzeko onartu ondoren, 2025eko urtarrilaren 8an, Arartekoak informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, honako gai hauei buruz:
- . EAEn angularen arrantza profesionala ezartzeko erabakia eta jarduera horretan aritzeko baldintzak (lizentziak ematea, harrapaketen gehieneko kupoa finkatzea, etab.) oinarritu zituzten azterlan tekniko eta zientifikoei buruzko informazioa. Bereziki, EAEko aingiraren ebaluaziorako nahiz babes-neurri gisa angularen zelata-arrantza delakoari buruz AZTIk egindako txostenak eskatu ziren.
 - . Elkarteak azterlan tekniko eta zientifiko horietan sartzeko egindako eskaerari emandako erantzunari buruz, erabakia hartu aurretik, ingurumen-gaietako informazioari eta parte-hartzeari buruzko legerian aurreikusitakoarekin bat etorritz.
 - . Arrantza profesionalaren jardueraren proportzionaltasunaren, egokitasunaren eta beharren justifikazioari buruz. Zehazki, arrantzale profesionalak (lanean nahiz erretiratuta daudenek) lizentzia eskuratzeko araubideari eta antzinasuna nahiz aurreko esperientzia aintzat hartuta hautaketa egiteko irizpideei buruzko informazioa.



4. 2025eko urtarrilaren 28an, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordearen txosten bat jaso zuen. Horren arabera, erregulazio autonomiko berria bat zetorren angula Europar Batasuneko angula europarraren populazioa berreskuratzeko betebeharrekin. Betebehar horiek Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko 2023/194 (EB) Erregelamenduan eta Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 10eko 2024/257 (EB) Erregelamenduan jasotzen ziren (erregelamendu horren bidez, aingiraren aisialdiko arrantza debekatu zen eta estatu kide bakoitzak aingira hilabetez arrantzatze baimentzeko aukera eman zuen). Zehazki, erantzuna honako hauei buruzkoa izan zen:

. Txosten teknikoak eta zientifikoak. EAEn angularen arrantza profesionala ezartzeko erabakia eta jarduera hori garatzeko baldintzak babesten zituzten azterlan tekniko eta zientifikoei dagokienez, erantzunak honako txosten tekniko hauek adierazten zituen:

- Europako Parlamentuko Arrantza Batzordearen txostena, 2023ko azaroaren 10ekoa, aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurriak ezartzen dituen Kontseiluaren 1100/2007 (EE) Erregelamenduaren aplikazioari buruzkoa.
- “De la anguila en la CAPV (2021)” ebaluazio osteko txostena, AZTIk egina.
- “Pesquería centinela: objetivo, ejemplos, requisitos y beneficios” txostena, AZTIk egina.
- “SEGPESQ 2023 Anguila. Programa Comunitario de Recopilación de Datos de Pesquerías” txostena, AZTIk 2024ko urtarrilaren 5ean egina.

Era berean, adierazten zuen dekretuaren hitzaurrean gaiari buruzko Europako araudiaren deskribapena egiten zela, araua egiteko orduan kontuan hartu zena. Hala, Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko 2023/194 (EB) Erregelamendua aipatzen zen, aingiraren aisialdiko arrantza debekatu baina angularen arrantza profesionala murrizketekin egiteko aukerari eusten ziona.

Euskadiko arrantza profesionalaren justifikazioa baimendutako harrapaketen kopuru mugatu eta kontrolatuan oinarritzen zen, eta arrantza-tokiaren eta arrantzale-komunitatearen parte-hartzearen monitoretza eta ebaluazioa zegoen.



. 77/2024 Dekretua onartzeko prozeduran parte hartzea eta bertan dagoen dokumentaziora irispidea izatea. Erantzunak aipatzen zuen 77/2024 Dekretua tramitatu ondoren onartu zela, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoaren arabera.

Prozedura Arrantza eta Akuikultura zuzendariaren 2023ko maiatzaren 22ko Ebazpenarekin hasi zen. Ebazpen horren bidez, EAEn angularen arrantza profesionala arautzeko xedapen orokorra egiteko aurretiazko kontsulta egin zen, eta xedapen horrek aukera ematen zien herritarrei eta eraginpeko erakundeei planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko.

Era berean, 2023ko irailaren 5eko Ebazpenaren bidez, Arrantza eta Akuikultura zuzendariak jendaurrean jarri zuen dekretu-proiektua.

2024ko martxoaren 27an, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak dekretu-proiektua egiteko kontuan hartutako AZTIren txosten tekniko eta zientifikoak bidali zizkion elkarteari, eta 20 eguneko epea eman zion oharrak egin ahal izan zitzaizkion.

2024ko urriaren 31n, dekretuaren administrazio-espeditentea elkarteari esku jarri zen, eta ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa jartzeko epea etetea ukatu zen. Espeditentean elkarteari aurkeztutako alegazioei buruzko txostena sartu zen. Txosten zientifikorik ez egoteari dagokionez, AZTIren txostena aipatzen zen, arrantza profesionalaren "zelata" kontzeptua azaltzen zuena.

2024ko azaroaren 19an, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordearen Ebazpena igorri zitzaion elkarteari, jarritako errekurtsioa ezesteko zena.

. Arrantza profesionalaren jardura gauzatzeko adostutako neurrien proportzionaltasunaren, egokitasunaren eta behararen justifikazioa. Txostenak Arrantza eta Akuikultura zuzendariak 2024ko martxoaren 26an sinatutako dekretu proiektuaren memoria aipatzen zuen, zeinak arrantza profesionala arautzeko arrazoi gisa ezartzen baitzuen *"espeziearen egoera eta aipatutako txostenetan jasotako datu zientifikoak"*.

Horri dagokionez, zehazten zuen angularen aisialdiko arrantzako 2019-2020 denboraldian aisialdiko 745 lizentzia eman zirela, eta 2018-2019 denboraldian aisialdiko 799 lizentzia eman zirela.



Txostenak adierazten zuenez, espeziearen egoera biologikoa kontuan hartuta eta zuhurtasun-irizpideei jarraituz, dekretuak erabaki zuen angularen arrantza profesionalerako 150 lizentzia ematea gehienez; horietatik 138 lehorretik arrantzatzeko modalitatean izan ziren, eta 12 ontzitik arrantzatzeko modalitatean.

Harrapaketen mugari dagokionez, dekretuak ezartzen zuen urtero zehaztu behar zirela, *"betiere irizpide zientifikoaren eta teknikoaren arabera"*. 2023-2024 kanpainaren kasuan, ebazpenak xedatu zuen kupo orokorra 550 kilogramo berrikusgarri izatea. Arrantza profesional pasiboko lizentzien titularrek bakarrik zuten 2 kilogramoko kupo espezifikoa lizentzia bakoitzeko, denboraldi osorako.

Lizentzien banaketa finkatzeko esleipen irizpideei dagokienez, 77/2024 Dekretuaren 6. artikulua ezarri zuen lizentzien bi heren puntuazio irizpideetan oinarrituta esleitu behar zirela, eta heren bat zozketa bidez. Memoriak justifikatzen zuen erregulazioaren helburu nagusia egokitze irizpide horiek proportzionalak eta ez-diskriminatzaileak zirela. Gainera, lizentzien esleipena arrantzale tradizionalari zein arrantzale berriei irekita zegoen.

Arrantzale tradizionalak barnean hartzea justifikatzen zuen arrazoia Europar Batasunak eskatutako Euskadirako angularen berreskurapen-plana egiteko ingurunearen ezagutzan eta jardunbide egokietan emandako esperientzia zen.

2005etik 1990era bitartean jaiotako pertsonen lehentasuna izateko erabakiari dagokionez, justifikatuta zegoen kolektibo hori arrantzako sektore profesionalera erakartzean, jarduera horretan belaunaldi-erlebea ahalbidetzeko.

Profesional aktiboa eta pasiboa bereizteari dagokionez, bereizketa hori itsasoko langileen Gizarte Segurantzako erregimen bereziko aurreikuspenetan oinarrituta zegoen; horrek jarduneko pertsonen alta ematea eskatzen zuen, pentsio bat jasotzen duten pertsonen kasuan izan ezik.

Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren arabera, erregulazioa bat zetorren 2023/194 eta 2024/257 (EB) Erregelamenduekin, biek ahalbidetzen baitzuten aingiraren arrantza profesionala murrizketen pean.

Txostenak Euskadin angularen arrantza profesionala arautzen zuen 77/2024 Dekretua egiteko prozesua zehazten zuen. Horri dagokionez, aipatzen zuen araua kontsulta publikora eta entzunaldi-izapidera eraman zela. Era berean, aingiraren ebaluazioari eta zelata-arrantzari buruzko AZTIren hainbat txostenetan justifikatzen zuen haren erregulazioa. Txostenak uste zuen, halaber, angularen arrantza profesionala ezartzea justifikatzen zuten txosten tekniko eta zientifikoetarako irispidea eman zela.



Hartutako neurrien proportzionaltasunaren, egokitasunaren eta beharraren justifikazioari dagokionez, erregulazioak 2024-2025 denboraldirako 150 lizentziako muga eta 550 kg-ko harrapaketa muga ezarri zituela adieraztera mugatzen zen erantzuna, eta horrek, praktikan, azken bi denboraldietan zeuden aisialdiko lizentzien kopurua nabarmen jaitea zekarren. Txostenak lizentziak esleitzeko arrazoiak aipatzen zituen, puntuazioa eta zozketa konbinatuz, arrantza tradizionalen eta profesional berrien parte-hartzea orekatzeko. Arrantza profesional aktiboaren eta pasiboaren arteko bereizketa ere aipatzen zuen, Gizarte Segurantzaren erregulazioan oinarrituta.

. Beste txosten garrantzitsu batzuk. Azkenik, espedientearekin batera aurkeztutako dokumentazioak bi txosten aipatzen zituen; eta aipatzea komeni da, kexa hau aztertzeko garrantzitsuak direlako:

- 2023ko urriaren 11ko txostena, Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzarena, dekretu proiektua jendaurrean jartzeko izapidearen esparruan. Txostenak nabarmentzen zuen EAEko aingiraren egungo egoerari buruzko erreferentzia falta erregulazioaren xedean eta helburuan. Era berean, beharrezkotzat jotzen zuen arrantza profesionalaren aukera espezie horren populazioa berreskuratzearekin eta hobetzearekin lotzea.
- 2024ko otsailaren 22an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (EABJ) 20/2024 Irizpena eman zuen, dekretu proiektuari eta haren izapidetzeari buruzko hainbat gairi buruz ohartaraziz. Irizpenaren arabera, proiektuaren xedea angularen arrantza profesionalaren erregulazioa izanik, justifikazioan jaso beharko litzateke zein irizpide tekniko eta zientifiko onartu zen araututako konponbidea lortzeko, kontuan hartuta helburu nagusia angularen berreskurapena eta zaintza izan beharko litzatekeela. Erregulazio-proposamenak bateragarria izan behar zuen CIEMen gomendioarekin; alegia, ez zedila aingira-harrapaketarik egin ezein habitatetan eta bizitzaren ezein fasetan, banaketa-eremu natural osoan. Gomendio hori aisialdiko harrapaketarako nahiz harrapaketa komertzialetarako aplikatzen zen.

Angularen arrantza profesionalaren jardueran sartzeko 6.1.a) artikuluko irizpideei dagokienez, EABJak ezinbestekotzat jotzen zuen neurri horien beharra eta proportzionaltasuna behar bezala justifikatzea erregulazioaren helburu nagusiarekin (hau da, angularen kontserbazioarekin).



EABJaren irizpenak ohartarazten zuen, halaber, elkarteari ez zitzaiola erantzunik eman, alegazioak egiteko legezko epea amaitu aurretik eskatu baitzuen espediente osorako (txosten guztiak barne) irispidea.

Irizpenak, amaitzeko, dekretua egiteko prozedura osatzeke zegoela adierazi zuen, eta, horretarako, honako hau eskatu zen: *erregelamendu-proiektuan sartutako aukera arautzaileen oinarri diren azterlan zientifikoak eta teknikoak aurkeztea*. Era berean, ohartarazten zuen beharrezkoa zela informazio publikoaren izapidea osatzea, elkarteei dauden azterlan guztiak emateko (zehazki, AZTIren azterlanak). Bestalde, dekretuaren 6.1 a) artikuluko kupoak esleitzeko irizpideak ez justifikatzearen aurkako txostena eman zuen irizpenak.

Kexaren eta Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bidalitako informazioaren planteamendua aztertu ondoren, Arartekoak egokitzen jo du gogoeta hauek egitea:

Gogoetak

1. Kexaren mamia. Elkarteak Arartekora jo zuen, azaltzeko ez zegoela ados Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala sartu zuen ekainaren 18ko 77/2024 Dekretuaren erregulazioarekin eta Eusko Jaurlaritzak (orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta) onetsitako 2024-2025 denboraldirako arrantza lizentziak lortzeko prozedura ezarri zuen 2024ko irailaren 24ko Ebazpenarekin.

Elkarteak zalantzan jartzen zuen 77/2024 Dekretua onartzeko jarraitutako prozedura. Izan ere, haren balorazioan, xedapen orokor horrek ez zuen behar bezala justifikatu aingiraren kontserbazio-egoera kritikotik eratorritako betebeharretara egokitzen zela (egoera hori Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Kontseiluak onartu zuen), ez eta Europar Batasunaren honako hauetan jasotako erregulaziora ere: Kontseiluaren 2007ko irailaren 18ko 1100/2007 (EE) Erregelamenduan —erregelamendu horren bidez, aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurriak ezarri ziren— eta Kontseiluaren 2023/194 (EB) Erregelamenduan (urtarrilaren 30ekoa) eta Kontseiluaren 2024/257 Erregelamenduan (2024ko urtarrilaren 10ekoa) —horiek mugatu egin zituzten haren arrantzarako aukerak eta debekatu egin zuten aisialdiko arrantza, arrantza profesionala murrizketekin soilik mantentzea ahalbidetuz—.

Elkarteak planteatzen zuen EABJak berak, 20/2024 Irizpenean, bere garaian kontuan izan zuela erabaki horien justifikaziorik eza zegoela dagozkion txosten tekniko eta zientifikoetan oinarrituta.



Era berean, elkarteak planteatzen zuen ez zegoela ados 2024-2025 denboraldian angularen arrantza profesionala ahalbidetzeko lizentziak egun horretara arte aisialdiko arrantza egin zuten arrantzalaren bati emateko ondorengo prozedurarekin.

2. Erregelamenduak egiteko ahala kontrolatzea. Edozein gogoeta egin baino lehen, komeni da erakunde honek erregelamenduak egiteko ahala erabiltzeari dagokionez esku hartzeko duen eremua aipatzea. Erregelamenduak egiteko ahalaren esparruan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 127. eta 128. artikuluek ezartzen dute gobernu-organo eskudunek xedapen orokorrak onartzeko ahalmena dutela, betiere beren eskumenen arabera eta Konstituzioarekin, legeekin eta erregulazio onaren eta herritarren parte-hartzearen printzipioekin bat etorriz.

Erregulazio onaren printzipioak. Erregelamenduak egiteko ahala erabiltzeko, hainbat printzipio justifikatu behar dira zioen azalpenean: premia eta efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Premia- eta efikazia-printzipioen kasuan, interes orokorreko arrazoi batek justifikatu behar du araugintza-ekimena, lortu nahi diren helburuak argi identifikatzean oinarritu behar du, eta helburu horiek lortzen direla bermatzeko tresnarik egokiena izan behar du.

Proportzionaltasun-printzipioaren kasuan, erregulazioak justifikatu behar du ezinbestekoa dela bete beharreko premiari erantzuteko, hain murriztaileak ez diren beste neurririk ez dagoela egiaztatu ondoren.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, ordenamendu juridikoaren errespetua modu argi eta koherentean bermatzea eskatzen du, Europar Batasunarena barne.

Gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek beren dokumentu guztiak erraz, modu unibertsalean eta eguneratuan eskuratzeko aukera eman behar dute arauak egiteko prozesuan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Gardentasunak, halaber, araugintza-ekimenen helburuak zein diren argi eta garbi zehaztea eskatzen du, eta horien justifikazioa zioen azalpenean jasotzea, bai eta prestatze-prozesuan interesdunek aktiboki parte har dezatela ahalbidetzea ere.



Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua xedapen orokorrak egiteko prozeduran herritarrek izango duten parte-hartzea zehazten du (aurreiazko kontsulten, entzunaldi publikoaren eta interesa duen jendeari egindako zuzeneko entzunaldiaren bidez).

Bestalde, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikulua arau kalitatearen, beharraren eta efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren edo gardentasunaren printzipioak ere jasotzen ditu. Azken printzipio horrek aurreikusten du zioen azalpenean argi eta garbi zehaztea arau-ekimenei helburuak eta horien justifikazioa. Era berean, bermatu behar da horiek egiteko prozesuaren berezko dokumentuetarako irispide erraza, unibertsala eta eguneratua, bai eta arauen hartzaile izan daitezkeen parte-hartze aktiboa ere.

Erregulazio onaren printzipio horiek aplikatzeko, erregelamenduak egiteko ahala egikaritzeko eskumena duen organoak behar bezala azaldu behar ditu erregulazio horrekin lortu nahi dituen helburu eta interes publikoak, araututako neurrien proportzionaltasuna, gainerako arau lotesleekiko egokitzapena eta arauak izapidetzeko prozesuan gardentasun egokia bermatuko dela interesdunek parte hartuta.

Erregelamenduak egiteko ahala eta arrazoitzeko betebeharra. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak adierazten du (denen erakusgarri, 2024ko abenduaren 18ko 1986/2024 Epaia) erregelamenduak egiteko ahalaren egikaritzearen kontrolak legez ezarritako lanketa prozedura betetzea dakarrela, baita zuzenbidearen printzipio orokorrak errespetatzea ere, arauaren edukia zehazteko diskrezionalitatea salbu utzita. Diskrezionalitate hori egikaritzen den erregelamenduak egiteko ahalaren titularrari dagokio, eta ezin da ordeztu beste alde baten edo jardueraren legezketasuna kontrolatzen duten auzitegien beraien balorazio subjektiboekin.

Hala ere, auzitegiak adierazi du diskrezionalitate hori ez dela arbitrariotasuna, eta, beraz, arauaren edukia arrazoitzea behar dela, arautu nahi den errealitatearekin bat etor dadin. Arrazoitzea legezketasunaren beraren bermea da; izan ere, arrazoi horiek dira justizia-uzitegiak epaitzeko parametroa, eta horiek ez egoteak edo inkongruentziak, hala badagokio, erregelamendu-araua deuseztatzea justifika dezakete.

*"El control judicial del ejercicio de la potestad reglamentaria, en lo que atañe a la interdicción de la arbitrariedad, establecida para todos los poderes públicos en el artículo 9.3 CE, responde a la necesidad de **evitar que el contenido de la norma sea incongruente o contradictorio con la realidad que se pretende regular, con la "naturaleza de las cosas" o la esencia de las instituciones, o que el sentido de la***

decisión, como señala la sentencia de 12 de junio de 2006, "**no tiene motivación respetable**, sino -pura y simplemente- la conocida *sit pro ratione voluntas* o la que ofrece lo es tal que escudriñando su entraña, denota, a poco esfuerzo de contrastación, su carácter realmente indefinible y su inautenticidad (STS 13- 7- 1984, 21-11-1985, 1-12-1986, 19-5-1987...)."

Sobre este último aspecto de la motivación, señala la STS de 13 de noviembre de 2000, que "una de las manifestaciones características de la discrecionalidad administrativa es, sin duda, la reglamentaria, en la que el titular de la potestad tiene una **libertad de opción o de alternativas** dentro de los márgenes que permite la norma que se desarrolla o ejecuta, pero aun así **la motivación, por la que se hace explícita las razones de la ordenación, es garantía de la propia legalidad**, ya que, incluso, la **razonabilidad**, al menos como marco o límite externo a la decisión administrativa válida, **sirve de parámetro** para el enjuiciamiento del Tribunal y **puede justificar**, en su caso, **la anulación de la norma reglamentaria**". Lo que no impide tomar en consideración las particularidades que la motivación presenta en relación con el ejercicio de la potestad reglamentaria, a las que alude la STS de 22 de junio de 2004, cuando señala que "el deber de motivación, que constituye una garantía del actuar administrativo, no tiene la misma plasmación jurídica en el procedimiento de elaboración de las disposiciones generales que en el procedimiento administrativo, al engarzarse en aquél caso en los presupuestos constitucionales sobre la justificación de la norma reglamentaria, por lo que cabe desestimar que se haya acreditado que la norma reglamentaria impugnada **carezca de motivación o de razón suficiente para su adopción**, o que **sean insuficientes los estudios previos, o los informes preceptivos evacuados**, que constituyen, según tiene declarado esta Sala del Tribunal Supremo, cánones válidos para enjuiciar la conformidad a Derecho de las disposiciones generales".

Ondorioz, erregelamenduak egiteko ahala baliatzeak diskrezionalitate-tarte bat ematen dio organo eskudunari, bateragarria izan behar duena ordenamendu juridikoa errespetatzearekin eta interes publikoko eta erregulazio berriaren beharraren arrazoiak arrazoitzeko eta justifikatzeko betebeharrarekin. Araua onartzeko prozeduran zehar azaldu behar den arrazoibide horrek bat etorri behar du egitateekin eta lortutako datuekin, eta kontuan hartu behar dira alde aurretik egindako azterlanak eta txostenak, erregulazio hori izaera arbitrariotik aldentzeko dutenak.

Aztertzen ari garen kasuari dagokionez, elkarrekin planteatzen zuten Euskadiko arrantza profesionalaren erregulazioa ez zetorrela bat EBk aingira europarraren populazioa berreskuratzeko hartutako betebeharrarekin. Era berean, adierazten zuten erregulazio hori ez zegoela behar bezala arrazoituta; izan ere, bere ustez, ez zegoen arrantza profesionala arautzeko egokitasunaren justifikazio tekniko eta zientifikorik. Horretarako, alegatzen zuten angulak arrantzatzeko neurri horiek

bermatzen zituen txostenik edo azterlanik ez zegoela, eta arrantza-lizentziak ematean lehentasunetarako irizpideak ez zeudela justifikatuta.

Horri dagokionez, egokia da jarraian aztertzea Europar Batasuneko araudiaren aipatutako aurreikuspenetatik eratorritako aingira europarraren populazioa berreskuratzeko betebeharren edukia. Araudi hori zuzenean aplikatzekoa da, Euskadiko erregulazioak murrizketak betetzen direla bermatzen duen baloratzeko. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak jarraitutako prozedura eta 77/2024 Dekretuak onartutako neurrien justifikazioa eta 2024-2025 denboraldirako aplikatzeko egindako gainerako jarduerak baloratu behar dira.

3. Aingira europarraren populazioa berreskuratzeko betebeharrari buruzko EBren erregulazioa.

- **Aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurriak.** Aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurriak ezarri zituen [Kontseiluaren 2007ko irailaren 18ko 1100/2007 \(EE\) Erregelamendua](#) da EBko zuzenbidearen erreferentzia-araua angularen arrantzaren arloan. Erregelamendu horren helburua zen estatu kideetako kostaldeko uretan eta estuario eta ibaietan espezie hori babesteko eta modu jasangarrian ustiatzeko beharrezko esparrua ezartzea. Erregelamenduak aipatzen zituen Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Kontseiluak (CIEM) aingira europarrari buruz emandako irizpen zientifikoak, zeinak jada adierazten baitzuten haren populazioa segurtasun-muga biologikoetatik kanpo zegoela; beraz, gomendatzen zuen aingira europarraren populazio osoarentzako berreskuratze-plan bat egitea, urgentziaz, eta haren ustiapena eta arrantzan eragina zuten gainerako giza jarduerak "*ahalik eta gehien*" murriztea.

. Aingiraren kudeaketa plana. Ildo horretan, erregelamenduaren 2.3 artikulua jasotzen zuen estatu kideek aingiraren kudeaketa-plan bat egin behar zutela mugatutako ibai-arro bakoitzerako, hilkortasun antropogenikoa murrizteko eta, probabilitate handiarekin, gutxienez aingira europarraren biomasaren % 40k itsasorantz ihes egitea ahalbidetzeko. Aingiraren kudeaketa plana beranduenez 2008ko abenduaren 31 baino lehen jakinarazi behar zitzaion Europako Batzordeari, eta merkataritzako arrantza-jarduera murrizteko eta kirol arrantza mugatzeko neurriak jaso behar zituen.

. Arrantza-jardueren murrizketak. 2009ko uztailaren 1etik aurrera, edo kudeaketa plana aplikatzeko egunetik aurrera, aingirak arrantzatzea baimenduta zegoen, baldin eta arrantza-jarduera horiek Europako Batzordeak onartutako aingiraren kudeaketa plan batean ezarritako zehaztapenetara eta murrizketetara egokitzen baziren.

. Birpopulaketari buruzko neurriak. Erregelamenduaren 7. artikulua jasotzen zenez, kudeaketa-planak angulak arrantzatzeko aukera ematen badu, estatu kide bakoitzak *"reservará al menos el 60 % de las capturas de anguilas de menos de 12 cm de longitud realizadas merced a las actividades pesqueras de dicho Estado miembro a lo largo de cada año para que se comercialicen para ser usadas en la repoblación en cuencas fluviales de la anguila"* aingira europar helduen ihes-mailak handitzeko helburuarekin, hargatik eragotzi gabe Batzordeak salmentaren gehiegizko prezioaren arabera ehuneko hori jaisteko duen ahalmena.

. Ebaluatzeko betebeharra. 9. artikulua ezartzen zuen estatu kideek aldian-aldian eman behar diotela Batzordeari egindako kontrol-neurrien berri, eta haien efikazia eta lortutako emaitzak ebaluatu behar dituztela. Besteak beste, ebaluazio-txostenek datu hauek eman beharko lituzkete: aingiren biomasak itsasorantz egindako ihesaren proportzioa, aingirak harrapatzea urtero bideratzen den arrantza-ahaleginaren maila, onartutako kudeaketa-planean xedatutakoaren arabera egindako murrizketa, eta harrapatutako angulen kopurua.

. Merkataritzako arrantza-jardueri buruzko informazioa. Arrantza-jardueren kontrolari dagokionez, erregelamenduak xedatzen zuen estatu kideek merkataritzako arrantza-jardueren berri eman behar zutela, eta, besteak beste, datu hauek eman behar zituztela: ibai-arroetan aingirak arrantzatzeko baimena duten arrantza-ontzien, merkataritza-erakundeen edo arrantzaleen zerrenda (11.1 artikulua), eta kirol-arrantzaleen eta horien aingira-harrapaketen kopuruaren zenbatespena aldian-aldian (11.2 artikulua).

- **Aingiraren arrantza mugatzeko neurriak.** Aingira berreskuratzeari buruzko erregulazioaz gain, Europar Batasunak aldizka arautu ditu arrain-espezie jakin batzuetarako arrantza-aukerak (horien artean dago angularena).

Bai [Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko 2023/194 \(EB\) Erregelamenduak](#) (2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko martxoaren 31ra bitarteko aplikazio-aldia), bai [Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 10eko 2024/257 \(EB\) Erregelamenduak](#) (2024ko apirilaren 1etik 2025eko martxoaren 31ra bitarteko aplikazio-aldia) aipatzen zuten, estatu kideek aingira berreskuratzeko ahaleginak egin arren, EBn ez zela aurrera egin itsasorantz gutxienez biomasaren % 40ko ihesa ahalbidetzeko helburua lortzean. 2023ko azaroan, CIEMek berriro ebatzi zuen, arreta irizpidea aplikatuz, ez zela aingirarik harrapatu behar inongo habitatetan eta bizi fasetan, banaketa-eremu natural osoan, bai aisialdiko harrapaketei dagokienez, bai harrapaketa komertzialei dagokienez.

. Aisialdiko arrantzaren debekua. Aingiraren populazioaren egoera txarra kontuan hartuta, 2024/257 Erregelamenduaren 13.7 artikulua aingiraren aisialdiko arrantza debekatu zuen bere bizi fase guztietan.



Aingirak egoera kritikoan jarraitzen duenez [Kontseiluaren 2025eko urtarrilaren 30eko 2025/202 \(EB\) Erregelamenduak](#) erabaki du neurri murriztaile horiei eustea 2025erako.

. Merkataritza-arrantza mugatzea. Merkataritza-arrantzaren kasuan, EBren erregelamenduek angula-kopuru mugatu baten harrapaketari eustea ahalbidetzen zuten, angularen arrantzaren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko eta erabateko debekuaren ondorio sozioekonomiko potentzialki larriak kontuan hartuta.

. Debekualdiak. 2024/257 Erregelamenduak eta ondorengo 2025/202 Erregelamenduak ezarri dute estatu kideek aingiraren arrantza komertziala baimendu dezaketela hogeita hamar egunez.

. Ikerketa zientifikorako arrantza. 13.2 artikulua salbuetsi egiten zuen murrizketa horiek ikerketa zientifikorako soilik egiten diren merkataritza-arrantzako eragiketetan aplikatzea *“siempre que la investigación se lleve a cabo de conformidad con las condiciones establecidas en el artículo 25 del Reglamento (UE) 2019/1241”* Batzordeari jakinarazteko betebeharrari dagokionez eta Arrantzako Komite Zientifiko, Tekniko eta Ekonomikoak (CCTEP) arrazoi zientifikoen justifikazioa berretsi badu.

Ondorioa. Lehenik eta behin, adierazi behar da aipatutako erregelamenduak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 288. artikuluan definitutako egintza juridikoak direla, eta, Europar Batasuneko (EB) zuzenbidearen nagusitasun-printzipioaren arabera, estatuetak barne-zuzenbideari gailentzen zaizkiola, zuzeneko eragina dutelako eta EBko estatu kideetako elementu guztietan nahitaezkoak direlako. (Justizia Auzitegiaren epaia, 1964ko uztailaren 15ekoa, 6/64 auzia, Costa versus ENEL).

1100/2007 (EE) Erregelamenduak ezarri duenez, estatu kideek aingiraren kudeaketa-plan bat egin eta Europako Batzordeari jakinarazi behar diote, aingiraren biomasaren % 40k gutxienez itsasorantz ihes egitea ahalbidetzeko. Horretarako, merkataritzako arrantza jarduera murrizteko eta kirol-arrantza mugatzeko neurriak ezarri beharko dituzte, CIEMen gomendioari ahalik eta gehien jarraituz. Halaber, angulen harrapaketen gutxienez % 60 birpopulatzeko neurriak jaso beharko dituzte. Estatu kideak behartuta daude aldizka Batzordeari kudeaketa-planean jasotako kontrol-neurrien berri ematera eta horien efikazia eta lortutako emaitzak ebaluatzen. Era berean, dauden arrantza-jarduera komertzialei buruzko informazioa eman behar dute, kudeaketa-planekin bat etorriz.



2023/194, 2024/257 eta 2025/202 (EB) Erregelamenduek berariaz debekatu dute aisialdiko arrantza ez-profesionala, eta gehienez 30 eguneko debekualdietara mugatu dute arrantza profesionala, dagoen angularen arrantzaren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko. Bestalde, ikerketa zientifikorako arrantza egitea aurreikusi dute, arrazoi zientifikoak aldeztirik justifikatu diren kasuetan bakarrik.

Erregelamenduak irakurrita ondorioztatzen da erregulazio horren helburu nagusia angularen babesa dela, EBn gainbehera baitago. Horretarako, onartutako kudeaketa planek dagoen arrantza profesionala ahalik eta gehien mugatu behar dute, dagoen arrantza profesionalaren bideragarritasun ekonomikoa zaintzeko eta aisialdikoa debekatzeko.

4. Angularen kudeaketa eta haren erregulazioa Euskadin.

Gai horren azterketari dagokionez, Euskadiko aingiraren erregulazioaren eta kudeaketa-planen aurrekariak aipatu behar dira labur-labur.

EAEko aingira europarraren kudeaketa plana. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin batera, [EAEko aingira europarraren kudeaketa plana](#) aurkeztu zuen 2008ko abenduan (aurrerantzean, Kudeaketa plana).

Kudeaketa plan horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan *Anguilla anguilla* espeziearen arrantza jarduera tradizionala zen, eta angula zeneko gazte-fasean soilik egiten zen. Kudeaketa planaren arabera, angularen arrantza Euskadin aisialdikoa zen, ez baitzegoen arrantzako jarduera profesional edo komertzialik bere horretan.

Kudeaketa planak hainbat neurri jaso zituen, kirol arrantzaren inpaktua % 50 murrizteko helburu nagusiarekin, Kudeaketa plana onartzeko unearekin alderatuta. Horretarako, honako hauek proposatzen zituen: lizentziak emateko araudia zorrotz betetzea, lizentzia bakoitzeko 2 kg angulako eguneko kupo bat ezartzea, arrantza-denboraldia murriztea azarotik urtarrilera bitartean eta arro batzuk aingira-erreserba iraunkor izendatzea. Egindako harrapaketak saltzea debekatuta zegoen. Arrantza profesionalari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan halakorik ez zegoenez, Planak ez zuen murrizketa-mekanismoirik aurreikusten.

Kudeaketa plan hori eta [Espainiako estatuko aingira europarraren gainerako kudeaketa planak](#) Europako Batzordeak onartu zituen 2010eko urriaren 1eko Erabakiaren bidez.



Azken batean, indarrean dagoen EAEko aingira europarraren kudeaketa planak aisialdiko arrantza baino ez du ezartzen; eta espezie horren kontserbazio-egoera hobetzeko zenbait neurri jasotzen ditu, harrapaketak Plana egiten den unearerako % 50 murrizteko.

Aisialdiko angula-arrantzaren erregulazioa. Kudeaketa planak bere aurrekarietan aipatzen zuenez, Eusko Jaurlaritzak [otsailaren 18ko 41/2003 Dekretua](#) onartu zuen 2003. urtean, angularen arrantzari buruzkoa. Dekretu horren arabera, jarduera horretan aritzeko lizentzia pertsonala eta besterenezina behar zen, eta harrapaketen koadernoan bete behar zen. Metodo tradizionalen bidez lehorretik edo ontzitik arrantzatzea ziren araututako modalitateak. Erregulazioak arrantza-denboraldi bat ezartzen zuen, urritik martxora arte irekia. Maiatzaren 10eko 107/2005 Dekretuak 41/2003 Dekretua aldatu zuen, honako aukera hau txertatzeko: Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak angularen arrantza prebentzioz eta aldi baterako debekatzea erabaki zezan, dagozkion txosten tekniko eta zientifikoetan oinarrituta. Horri dagokionez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren [2018ko azaroaren 8ko Aginduaren](#) bidez, Eusko Jaurlaritzak, espeziearen egoera delikatua kontuan hartuta eta harrapaketak kudeaketa planaren aurrekoak baino handiagoak izaten ari zirela iritzita, ontzitik egindako angula-harrapaketak denboraldi bakoitzeko abenduaren 3tik 11ra mugatzea erabaki zuen.

. **Arrantza profesionalaren erregulazioa Euskadin.** 2023an, [Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen angularen arrantzaren jarduera profesionalizatzea proposatzea](#), EAEn dagoen jarduera tradizionalari eusteko eta angularen kirol arrantza debekatzen zuen 2023/194 (EB) Erregelamendura egokitzeko. Espeziearen iraunkortasunari eusteko helburuari dagokionez, erregulazioak arrantza-lizentzia profesionalen kupo bat finkatzea proposatu zuen.

Aurrekarietan aipatutako aurretiazko kontsultaren eta informazio publikoaren prozedura jarraitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta, [77/2024 Dekretua](#) onartu zuen.

. Dekretuaren zioen azalpenean adierazten zenez, angularen kontserbazio-egoera txarra zela eta, Eusko Jaurlaritzak «*angularen zelata-arrantza*» izeneko modalitate bat proposatzen zuen; modalitate horren bidez, haren arrantza profesionalerako aukera ematen zen modu mugatuan eta kontrolatuan arrantzaleen komunitatearen parte-hartzearekin. Era berean, angulak birpopulatzeko harrapatzea kontserbazio-neurri gisa aipatzen zuen, eta arrantza horren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatu ahal izateko angula kantitate bat beste helburu batzuetarako harrapatzeko aukera ematea ere beharrezkoa zela.



Nolanahi ere, erregulazio horren helburu nagusia honako hau zen: *“angularen arrantza profesionalizatzea erregelamendu horrek ezarritako mugetan eta, betiere, xedapenak egungo lege-ikuspegira egokituta”*.

Horretarako, dekretuak profesional aktibo gisa lizentzia pertsonala eta besterenezina lortzeko baldintza ezartzen zuen, eskatzailea Gizarte Segurantzako itsasoko langileen araubide berezian alta emanda zegoenean eta jarduera horren ondoriozko diru-sarrerak jasotzen zituenean, edo profesional pasibo gisa, pentsio bat jasotzen ari zenean.

Angularen arrantzale profesionalen lizentzia kopurua 150ean ezarri zen (horietatik 138 lehorreko modalitatean, eta 12 ontzikoan).

Dekretuaren 6. artikulua arautzen zuen lizentzia horien bi heren puntuazioaren arabera esleituko zirela, honako hauek kontuan hartzen zituzten irizpideetan oinarrituta: aisialdiko arrantzako aurreko kanpainetan parte hartzea, angularen berreskurapenerako kudeaketa-planari datuak emanaz laguntzea, 1990etik 2005era bitartean jaio izana, angulen sektorea ordezkatzeko duen elkarte bateko kide izatea, hiru urte baino gutxiagoko antzintasuna duen jarduneko arrantza-sektoreko profesionaltzat hartzea edo enplegu-eskatzaile egoeran egotea. Gainerako lizentziak zozketa publiko bidez esleituko lirateke.

Bestalde, Arrantza eta Akuikultura zuzendariaren [2024ko irailaren 24ko Ebazpenak](#) 2024-2025eko denboraldirako angularen arrantza profesionalerako lizentzia-eskabideetarako prozedura epea ezarri zuen. Denboraldi horretako harrapaketak, guztira, 550 kilogramokoak izan ziren, Kudeaketa planaren helburuarekin bat etorriz (hau da, harrapaketak % 50 mugatzea 2004tik 2008ra bitarteko urteekiko). Nolanahi ere, 2 kilogramoko kupoa baino ez zen ezartzen lizentzia bakoitzeko, denboraldi osorako, arrantza profesional pasiboko lizentziaren titularren kasuan.

5. Arrantza profesionala ahalbidetzeko adostutako neurrien justifikazioa.

Aurreko puntuan azaldukotik ondoriozta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza profesionalaren erregulazioaren helburu nagusia angularen arrantza profesionalizatzea izan dela, orain arte aisialdikoa izan dena, EBko araudian jasotako legezko eskakizunetara egokitzeko. Eusko Jaurlaritzak arrantza profesionala arautzearen helburua da arrantza tradizionalaren jarraitutasuna bermatzea, dauden arrantzale tradizionalen komunitatea mantentzea bermatuko duten eta adin txikieneko kolektiboen artean arrantza-modalitate hori sartzea sustatuko duten baldintza batzuk finkatuz.



Angularen kontserbazio-neurriei dagokienez, arrantza profesionalaren erregulazioak lizentzia profesionalen kopuru bat ezarri du, eta gehieneko arrantza-kuota bat ezarri du denboraldi osorako. Banakako arrantzaleen kasuan, erretiro-egoeran dauden arrantzaleentzako berariazko arrantza-kuota bat baino ez da ezartzen.

Lehen adierazi bezala, erregelamenduak egiteko ahala baliatzeak diskrezionalitate-tarte bat ematen dio organo eskudunari, bateragarria izan behar duena ordenamendu juridikoa errespetatzearekin (kasu honetan, EBren erregulazioarekin) eta interes publikoko eta erregulazio berriaren beharraren arazoak arazoitzeko eta justifikatzeko betebeharrarekin.

. **EABJaren irizpena.** Horri dagokionez, Arartekoak guztiz garrantzitsutzat jotzen ditu EABJaren 20/2024 Irizpenean dekretu proiektuari eta haren izapidetzeari buruz islatutako gogoetak.

Arrantza profesionala bermatzen duen txosten tekniko eta zientifikorik ez egotea. Horri dagokionez, EABJaren irizpenak adierazten zuen, proiektuaren xedea angularen arrantza profesionala arautzea izanik, araututako konponbidea lortzeko onartutako irizpide teknikoa eta zientifikoa zein izan zen jaso beharko litzatekeela, kontuan hartuta helburu nagusia angularen berreskurapena eta zaintza zela.

(52) En consecuencia, como parte relevante de la justificación de la iniciativa deberá figurar la opinión u opiniones técnicas y científicas que refrenden que la mejor solución, en el marco del objetivo de preservación perseguido, es que — una vez prohibida la pesca recreativa— se permita la pesca profesional de la angula en las condiciones de ejercicio de la actividad que contempla el proyecto.

Era berean, adierazten zuen erregulazio-proposamenak bateragarria izan behar zuela CIEMen gomendioarekin, bizitzaren ezein fasetan aingira-harrapaketarik gerta ez zedin (aisialdiko harrapaketarako zein merkataritza-harrapaketarako).

Irizpenak aipatzen zuen proiektuaren zirriborroaren azalpen-zatian bakarrik aipatzen zela “angularen zelata-arrantza” izeneko. Hala ere, espedienteak ez zuen inolako informaziorik ematen arrantza zientifikoaren tipologia horri buruz, EAEn angularen arrantza profesionalizatzeko beharra berresteko. AZTIren txostenetan ere ez zegoen justifikaziorik ‘zelata-arrantza’ren edukari buruz angularen arrantzari dagokionez edo aisialdiko 750 lizentzia 150 profesionaletara murrizteari buruz.

Hori dela eta, irizpenaren arabera, aisialdiko arrantzaren ordeztu arrantza profesionala ezartzeko erabakiak justifikatu egin behar zuen Euskadin angularen kontserbazio-egoera babesteko neurriak egokiena zela, honako hauei buruzko



datuen bidez: jatorri-egoera, harrapaketen bolumena eta horien bilakaera, lizentzia-kopurua, arroen araberako banaketa, etab.

Aldi berean, irizpenak honako hau ohartarazten zuen: kontuan hartuta arauaren helburu nagusia aingira kontserbatzea eta babestea zela, angularen arrantza profesionala *ex novo* sartzeko aukera arautzeak (aurretik ez zegoen jarduera ekonomiko bat zen) justifikatzea eskatzen zuela irizpen zientifiko eta teknikoetan oinarrituta.

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren 2023ko urriaren 11ko Txostenak ere ohartarazten zuen honako hau justifikatzeko beharraz: arrantza profesionalaren erregulazio berriak, orain arte ez zegoenak, erreferentzia nagusi gisa izan behar zuela aingiraren kontserbazio-egoera eskasa.

Informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko eskubidea. Bestalde, EABJaren irizpenak ohartarazten zuen, halaber, elkarteari ez zitzaiola erantzunik eman, alegazioak egiteko legezko epea amaitu aurretik eskatu baitzuen espediente osorako (txosten guztiak barne) irispidea. EABJak honako hau ondorioztatu zuen: *“el trámite de información pública no ha sido realizado de forma correcta, en tanto no ha tenido en cuenta lo establecido en la Ley 27/2006, de 18 de julio, y la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración ambiental de Euskadi”* (111)

Irizpenak, amaitzeko, dekretua egiteko prozedura osatzeke zegoela adierazi zuen, eta, horretarako, beharrezkoa zen honako hau: *aportar los estudios científicos y técnicos que fundamentan las opciones regulatorias incorporadas al proyecto de reglamento*. Era berean, ohartarazten zuen beharrezkoa zela informazio publikoaren izapidea osatzea, elkarteei dauden azterlan guztiak emateko (zehazki, AZTlren azterlanak).

EABJaren irizpenaren balorazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailak 2024ko irailaren 24ko Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoan emandako erantzuna ageri da. 2024ko azaroaren 19an, sail horrek errekurtsoa ezestea ebatzi zuen; eta adierazi zuen EABJaren irizpena nahitaezko txostena zela, baina ez loteslea. Nolanahi ere, adierazten zuen irizpenak memoria bat ekarri zuela, Arrantza eta Akuikultura zuzendariak 2024ko ekainaren 6an sinatua, eta memoria horretan lehen aipatutako AZTlren hiru txostenak aurkeztu zirela eta EAEko aingiraren kudeaketa planean gauzatutako hainbat neurri deskribatzen zirela.

Gai horri buruz, Arartekoak honako hau adierazi behar du: EABJaren irizpena nahitaezkoa den arren, loteslea ez bada ere, lotesleak dira organo aholku-emaile

horren txosten zorrotzak jasotzen dituen gogoeta juridikoak (erakunde hau, gainera, bat dator horiekin), 77/2024 Dekretua onartzeko erregelamenduak egiteko ahalaz baliatzearen ondoriozko betebeharrei dagokienez, gertakariekin eta lortutako datuekin bat etorri eta egindako alde aurreko azterlan eta txostenak kontuan hartuta.

. **Aipatutako txostenak.** Arrantza profesionaleko neurri berri horien justifikazio tekniko eta zientifikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak zenbait txosten aipatzen zituen. Jarraian aztertuko dira txosten horiek:

- [Europako Parlamentuko Arrantza Batzordearen txostena, 2023ko azaroaren 10ekoa](#), aingira europarraren populazioa berreskuratzeko neurriak ezartzen dituen Kontseiluaren 1100/2007 (EE) Erregelamenduaren aplikazioari buruzkoa. Zehaztu behar da aipatutako dokumentu hori ez dela txosten tekniko bat. 1100/2007 (EE) Erregelamenduaren aplikazioari buruz Europako Parlamentuan onartutako eduki programatikoko ebazpen bat da. Horri dagokionez, ebazpenak dio Aingirari buruzko erregelamendua tresna egokia eta integrala dela aingiraren populazioa kudeatzeko eta berreskuratzeko, baina ohartarazten du beharrezkoa dela estatu kideek haren aplikazioa hobetzea eta neurri gehigarriak hartzea, haren helburuak betetzen direla ziurtatzeko. Helburu horietan, aingiraren populazioa biomasaren % 40raino berreskuratzeko asmoa nabarmentzen da. Horri dagokionez, estatu kideei eskatzen die angula kudeatzeko planak aldizka eguneratzeko, eskura dituzten ezagutza eta aholkularitza zientifiko onenak oinarri hartuta.

Aingira-arrantzei buruzko neurrien artean, kultur tradizioa duen jarduera sozioekonomiko gisa duen garrantzia aipatzen du ebazpenak. Hori dela eta, Batzordeari eta estatu kideei eskatzen die arrantza-tokiei ezarritako murrizketen jarraipena egiteko eta, behar izanez gero, aingira-arrantzen iraunkortasuna hobetzeko neurriak proposatzeko. Era berean, arrantzale profesionalek eta aisialdiko arrantzaleek datuak biltzean eta legez kanpoko arrantzaren kontrolan laguntzaile gisa duten eginkizun ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala balioesten ditu.

Nolanahi ere, adierazten du arrantzarako murrizketa berriak onartutako angularen kudeaketa planen testuinguruan hartu behar direla, eta *eskura dauden irizpen zientifiko onenetan eta eragin sozioekonomikoaren aurretiazko ebaluazioetan* oinarritu behar direla, eta ukitutako arrantzaleentzako konpentsazio eta laguntza egokiak izan behar dituztela.

Era berean, berresten du birpopulatzea dela berreskuratzeko beharrezko neurrietako bat, eta birpopulatzen jarraitzeko eskatzen du.



Azken batean, Europako Parlamentuaren ebazpenak angularen kudeaketa planen aplikazioa eta eguneratzea bultzatzea eskatzen du, espeziea berreskuratzeko helburua bermatzeko. Horretarako, azpimarratzen du neurriak irizpen zientifiko onenetan oinarrituta hartu behar direla, eta arrantzaleen tokiko komunitateetan duten eragin sozioekonomikoa kontuan hartuta.

- “De la anguila en la CAPV (2021)” ebaluazio osteko txostena, AZTIk egina. 2021eko txosten zientifiko hori AZTIk egin zuen, 1100/2007 (EE) Erregelamenduko Europako Batzordeari aldi berean behin informazioa emateko betebeharrak betez.

Txostenak Euskadiko biomasa pristinoaren zenbatespen bat egiten zuen; 2020an % 7,3 ingurukoa izango zen, *erregelamenduaren helburu gisa ezarritako ihes pristinoaren % 40tik oso urrun*. Era berean, jasotzen zuen aingira helduaren edo zilar-aingiraren biomasak Euskadiko aingiraren kudeaketa plana onartu zenetik etengabeko beherakada izan duela.

Angularen arrantzaren ebaluazioari dagokionez, adierazten zuen 2019-2020 denboraldian aisialdiko 745 lizentzia eman zirela guztira, eta horietatik 709 lehorreko arrantzako modalitatekoak izan zirela. 2003-2004 urtean emandako lizentzien kopurua 1.000 baimenera iritsi zen. 2010-2011 denboralditik aurrera, 400 inguruan egonkortu zen. 2014-2015 denboraldian lizentzien kopurua bikoiztu egin zen.

Txostenak honako hau ohartarazten zuen: *“no se observa un descenso en las capturas desde la implementación del plan de recuperación en la temporada 2008-2009”*. Horri dagokionez, aipatzen zuen kudeaketa planeko neurriek lizentzia kopurua eta arrantza aldia murriztea ekarri zutela, baina arrantzan emandako ordu kopuruak gora egin zuela, eta 2014-2015 denboraldian gehieneko kopurura iritsi zela.

Arrantza profesionalaren ebaluazioari dagokionez, soilik aipatzen zuen aingiraren arrantza komertziala ez zela existitzen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horregatik, ez zela beharrezkoa izan hura murrizteko neurriak hartzea. Kirol arrantza mugatzeari dagokionez, aingira gaztea edo horia eta heldua edo zilar-aingira arrantzatzea debekatzeko 2009. urtetik ezarritako neurriak aipatzen zituen.

- “Pesquería centinela: objetivo, ejemplos, requisitos y beneficios” txostena, AZTIk egina, erreferentzia-datarik gabea. Emandako txostenak lau orrialde ditu, eta horietan, oro har, zelata-arrantzaren definizioa egiten da. Zelata-programa itsas espezie baten populazioaren egoeraren ebaluazioa jarraitzeko tresna da, *“arrantza komertzialik”* ez dagoenean. Ebaluazio horiek egiteko, zientzialariek



programa zientifiko horietan identifikatutako zelata-arrantzaleek emandako datuak erabiltzen dituzte. Zelata-arrantzek plangintza zientifikoa behar dute, bai eta jardunbide egokiengatik identifikatutako arrantzale batzuen parte-hartzea ere. Txostenak ondorioztatzen du, baldin eta *“esta pesquería sea exitosa debe estar diseñada y ejecutada con criterios científicos y una estrecha colaboración entre científicos y pescadores”*.

Ohartarazi behar da txostenak kasu arrakastatsuak aipatzen dituela, hala nola zigalaren edo sardinzarraren arrantza, baina ez duela aingiraren arrantzari buruzko aipamen zehatzik egiten.

- “SEGPESQ 2023 Anguila. Programa Comunitario de Recopilación de Datos de Pesquerías” txostena, AZTIk 2024ko urtarrilaren 5ean egina. Txosten horren helburua zen EAEko aingira-arrantzaren eta -stockaren jarraipena egiteko datuak biltzea. Txostenak aisialdiko arrantza murrizteko hartutako neurriak aipatzen zituen. Hala, adierazten zuen 2022-2023 denboraldian aisialdiko 644 lizentzia eman zirela guztira angulak arrantzatzeke, eta horietatik 612 lehorrean arrantzatzeke izan zirela.

Aitortutako harrapaketak areagotuz joan ziren 2019-2020 denboralditik (orduan 662 kilogramo aitortu ziren), 2021-2022ra (715 kilogramo), 2022-2023 denboraldira arte (1.317 kilogramo), lehorretik egindako harrapaketak ugaritu egin baitziren.

Aipatutako txostenak ikusita, ondorioztatu behar da bakar bat ere ez dela *ex profeso* bildu angularen arrantza profesionala Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeari justifikatzen duen erabakia hartzeko prozesurako. AZTIren txosten zientifikoetako bi angularen kudeaketa neurrien informazio eta jarraipen lanaren parte dira. Txosten tekniko batek ere ez ditu justifikatzen, ezta aipatzen ere, aisialdiko arrantza profesionalizatzeko arrazoiak, ezta arrantza profesionalerako 150 lizentzia edo 550 kilogramoko arrantza-kupoa ezartzea erabaki duen irizpide tekniko edo zientifikoa ere. Bestalde, AZTIk emandako datuek ez dute erakusten harrapaketek beherakada argirik izan dutenik 2008-2009 denboraldian berreskuratze-plana ezarri zenetik. Nolanahi ere, 2013-2014 denboraldian lizentzien eta harrapaketen kopuruak gora egin ondoren, zuzenketa bat egin da azken urteetan, araututako aisialdiko arrantzaren murrizketen ondorioz.

6. Arartekoaren balorazioa

. **Arrantza profesionalaren babesa *ex novo* justifikatzeko beharra.** Lehen aipatutako erregulazio onaren printzipioei dagokienez, erakunde honek beharrezkotzat jotzen du ohartaraztea dekretuaren erregulazioaren helburu nagusia (hau da, Euskadin angularen arrantza profesionalizatzea) ez datorrela bat



EBren erregulazioak jasotzen duen helburu nagusiarekin (hau da, aingira fase guztietan babestea, gainbehera baitago, eta dagoen arrantza profesionala ahalik eta gehien murriztea, dagoen arrantza profesionalaren bideragarritasun ekonomikoa babesteko, eta aisialdiko debekatzea).

Kasu horretan, angula-arrantza profesionalizatzeko neurri horren beharrak eta efikaziak, dagoen arrantza profesionalaren bideragarritasun ekonomikoa zaintzeko neurri gisa, ez du justifikazio egokirik aurkitzen; izan ere, eragin ekonomiko txikia du arrantza profesionalaren jardueran, eta, behar bezala aitortuta geratu denez, ez zegoen halakorik Euskal Autonomia Erkidegoan. Hori dela eta, aisialdikoaren sektorea konpentsatzeko neurriek proportzionalak izan beharko lukete aisialdiko arrantzaren profesionalizazioa inola ere aurreikusi ez duten EBren erregelamenduetako eta kudeaketa-planetako murrizketekin.

Arrantza komertzialaren kasuan, Europar Batasuneko Auzitegi Orokorrak, 2020ko martxoaren 10eko T-251/18 epaian (IFSUA/Kontseilua), honela definitzen du jarduera hori: *"por una parte, la ejercen personas para las que constituye su profesión y, por otra parte, afecta, al menos potencialmente, a los consumidores en su conjunto"*; eta honako hau azaltzen du, aldiz: *"la pesca recreativa es una actividad de ocio aun cuando, indirectamente, puede repercutir sobre las empresas, en particular las que comercializan el equipo que se utiliza en el marco de esta actividad"* (120. OJ). Auzitegiak gaineratzen duenez, *"la naturaleza económica de la pesca comercial puede justificar la atención prestada por el legislador de la Unión al impacto que las limitaciones que contempla adoptar tendrán en cada modalidad de pesca comercial"* (122. OJ) eta *"la diferencia de trato de las dos actividades en cuestión no es manifiestamente inadecuada o arbitraria para una actividad de ocio, cuando la normativa en cuestión tiene como finalidad preservar los recursos biológicos marinos y, en última instancia, garantizar que esta actividad pueda reanudarse sin trabas una vez se hayan regenerado las poblaciones."* (123. OJ).

Azken batean, arrantza komertziala edo profesionala babesteak lehendik dagoen arrantza-sektore ekonomikoan duen eraginari erantzuten dio. Izan ere, itsas baliabideen babesa eta sektore profesional horren jarraipena bateragarri egiten saiatzen da, itsas espezie horien kontserbazio-egoera hobetzea lortzen den unean. Hala ere, eragin ekonomiko hori ez da nabarmen sortzen aisia xede duen aisialdiko arrantzaren kasuan.

Baldintza horietan, merkataritza-arrantzaren edo arrantza profesionalaren babesa sektore ekonomiko hori alde aurretik egotetik abiatu behar da, ezin baita zaindu aurretik ez dagoena. Ildo horretan, erakunde honen iritziz, ez litzateke egokia izango aisialdiko arrantzako sektore bat babestea EBko araudiak arrantza profesionala babesteko aurreikusitako neurrien bidez, are gutxiago arlo



ekonomikoan duen eragina behar bezala justifikatu gabe. Gauzak horrela, Euskadiko angula-arrantzaren profesionalizazioak, orain arte aisialdikoa soilik izan bada ere, azterketa eta justifikazio ekonomiko egokiak beharko lituzke (eta, EABJaren txostenean adierazi den bezala, orain arte ez da halakorik aurkeztu).

Are gehiago, Arartekoaren ustez, angularen arrantza profesionala *ex novo* arautzeak aingira babesteko arauen atzerapen-neurri bat ekar dezake ondorio gisa. Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen zioen azalpenean honela definitzen da erregresiorik ezaren printzipioa: *"printzipioa, zeinaren ondorioz araudiak, administrazio publikoen jardunak eta jardunbide juridikzionalak ezin baitute eragin beherapen edo atzerapauso kuantitatibo edo kuantitatiborik une bakoitzean ingurumena babesteko dauden mailei dagokienez, interes publikoko arrazoiek erabat justifikatutako egoeretan ez bada. Kasu horietan, haztapen-judizio bat egin beharko da aurretiaz, ingurumen-ondasunarekin kontraesanean egon daitezkeen ondasun juridikoei dagokienez"*. Auzitegi Gorenaren ekainaren 30eko 3236/2023 Epaiak ezartzen duenez, erregresiorik ezaren printzipio horrek *"exige un esfuerzo de ponderación de los valores en presencia que debe quedar reflejado en el expediente administrativo, en la documentación del plan, y exteriorizarse en la correspondiente motivación para explicar las razones que llevan a la adopción de determinadas medidas que puedan reducir el nivel de protección ambiental hasta ahora alcanzado y su justificación desde la perspectiva de un interés público prevalente"*.

Azken batean, erregresiorik ezaren printzipio horrek interes publikoko arrazoen justifikazio eta motibazio tekniko berezia eskatuko luke, angularen arrantza profesionalizatzerara eta erregulazioaren helburu nagusiarekin (hau da, Euskadin angularen kontserbazio-egoera berreskuratzea edo hobetzea) kontraesanean egon litezkeen ondasun juridikoen arteko ponderazioa egitera eraman lezaketenak.

. **Angularen zelata-arrantza profesionaleko programak justifikatzeko beharra.** Dekretuan aurreikusitako "angularen zelata-arrantza" izenekoaren sorrerari dagokionez, adierazi beharko litzateke dekretuaren zioen azalpenean aipamen huts bat egiteak ez duela justifikatzen angularen arrantza profesionalaren helburu zientifikoa. AZTIren txostenak azaltzen du, soilik, zelata-arrantzak direla, arrantza komertzialik ez badago, arrain populazioen egoera ebaluatzeko tresna. Hala ere, ebaluazio horiek egiteko, txostenak ondorioztatzen du beharrezkoa dela zenbait baldintza betetzea, hala nola plangintza zientifikoa eta jardunbide egokiengatik identifikatutako arrantzale batzuen lankidetzeta.



Era berean, ikerketa zientifikorako arrantza-programek [2019/1241 \(EB\) Erregelamenduaren 25. artikuluan ezarritako baldintzak](#) bete behar dituzte, Batzordeari jakinarazteko betebeharrari eta Arrantzako Komite Zientifiko, Tekniko eta Ekonomikoak (CCTEP) arrazoi zientifikoen justifikazioa berretsi izanari dagokienez.

. Angula arrantzatzeke neurriak EAEko aingira europarraren kudeaketa planaren aurreikuspenetara egokitzeko beharra. Bestalde, segurtasun juridikoaren printzipioaren arabera, erregulazio horrek bat etorri beharko luke 1100/2007 (EE) Erregelamenduan jasotako aurreikuspenekin; horien arabera, onartutako kudeaketa planek ahalik eta gehien mugatu behar dute dagoen arrantza profesionala, eta aisialdiko arrantza debekatu behar dute.

Aztergai dugun kasuan, erakunde honek duen informazioagatik, Europako Batzordeak 2010ean onartutako EAEko aingira europarraren kudeaketa planak indarrean jarraitzen du, aisialdiko arrantzaren aukerari eta Euskadiko arrantza profesionalaren aurreikuspenik ezari dagokienez. Hori guztia, EBko aipatutako arau-aldaketak (berariaz ezarri baitzuten aisialdiko arrantzaren debekua) eta Eusko Jaurlaritzaren Dekretuak egindako arrantza profesionalaren erregulazio berria gorabehera.

Horrela, erakunde honen iritziz, Euskadin arrantza komertzialeko edo profesionaleko neurri berri bat sartzeak EAEko kudeaketa plana berrikustea eskatzen zuen; eta horrek Europako Batzordeari jakinarazi beharra ekarriko luke, 1100/2007 (EE) Erregelamenduaren arabera. Horri dagokionez, administrazio eskudunek egindako kontrol-neurrien berri eman behar diote aldian-aldian Batzordeari, eta haien efikazia eta lortutako emaitzak ebaluatu behar dituzte. Besteak beste, ebaluazio-txostenek merkataritzako arrantza-jarduerei buruzko informazioa eman behar dute, eta, besteak beste, arrantza-ontzien, merkataritza-erakundeen edo baimendutako arrantzaleen zerrenda eman behar dute.

Ondorio argigarri hutsetarako, Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2024ko abenduaren 17ko 1103/2024 epaia ekar daiteke hizpidera, autonomia-erkidego horretan angularen arrantzaren erregulazioa 2023/2024 kanpainen EBko zuzenbidera egokitzen den aztertu baitzuen. Auzitegiak egokitzen jo zuen arrantza profesionala arautzeko proposamen bat, lehendik zegoena eta kudeaketa plan baten barruan zegoena. Plan hori Europako Batzordera bidali zen aurretik, EBko erregelamenduekin bat ote zetorren azter zezan. Europako Batzordeak argitu zuen estatu kide bakoitzak zehaztu beharreko 3 hilabeteko debekualdiak bat etorri behar zuela aingiraren gehieneko migrazio-aldiarekin azterketa zientifikoen arabera (azaroa-martxoa). Kasu horretan, epaiak aipatzen zuen hartutako erregulazioa txosten tekniko batean oinarrituta justifikatu zela, zeinak kontuan hartu baitzituen CIEMek aingira europarrari buruz emandako aholkuak (horrek gomendatzen zuen



inpaktu antropogeniko guztiak, edozein bizi-egoeratako arrantza komertzial eta aisialdiko arrantza barne, murriztu edo zerotik ahalik gertuen mantendu beharko liratekeela). Ildo horretan, epaiak ebatzi zuen aurkaratutako ebazpena bat zetorrela 2023/194 (EB) Erregelamenduarekin, zeinak espeziea arrantzatzeke gehienez hilabeteko epea ezarri baitzuen aingiraren migrazio handieneko aldian.

. **Ingurumen-erabakiak hartzean parte-hartze publikoa sustatzeko beharra.** Arartekoak kontu hori aipatu du hemen: [Arartekoaren 12/2011 gomendio orokorra, abenduaren 28koa: demokrazia eta herritarren parte-hartzea](#). Ebazpen horretan adierazten dugunez, herri administrazioek parte-hartze mekanismoak eskaini behar dituzte ingurumeneko kontrola kudeatzeko, eta horietan, herritarrak eta elkarte interesdunak ordezkatuta egon beharko dira. Foro horietan funtsezkoa da informazio erabilgarri guztia noiznahi eskuratzeko modua ematea eta alderdien artean komunikatzeko bideak ezartzea.

Bestalde, Ingurumen-gaietan informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzean jendeak parte hartzeari eta justiziara iristeari buruzko hitzarmenak (Aarhuseko Hitzarmena izenez ezaguna) dienez, informazioa hobeto eskuratzeko eta erabakiak hartzean jendeak parte-hartze handiagoa izateak *"permiten tomar mejores decisiones y aplicarlas más eficazmente, contribuyen a sensibilizar al público respecto de los problemas medioambientales, le dan la posibilidad de expresar sus preocupaciones y ayudan a las autoridades públicas a tenerlas debidamente en cuenta"*. Bere xedapenen baitan, funtzionarioek eta agintariek laguntza eta lankidetzat emateko printzipio bat ere jasotzen du, interesa duen jendeari ahalbidetzeko errazago parte hartzea erabakiak hartzean. Gainera, jendearen heziketa ekologikoa bideratzea eta ingurumena babesten duten elkarte, erakunde edo taldeei berriarazko onarpena eta babesa ematea proposatzen du.

Ingurumen-informazioaren kasuan, informazioa eskuratzeko eskubide hori arautzen du uztailaren 18ko 27/2006 Legeak, zeinaren bidez arautzen baitira ingurumen-informaziorako, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak, ingurumenaren arloan; eta ordezko gisa, araudi horretan aurreikusten ez diren gaietarako, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeko bideari buruzkoak.

Informazioa eskuratzeko eskubide horren izaera instrumentalak dakar epe bereziki laburrak egotea. Administrazioak berehala erantzutea funtsezko premisa bat da partaidetzarako edo ingurumen justiziarako gainerako eskubideak gauzatu ahal izateko.

Hori dela eta, administrazio publikoek beharrezkoak diren baliabideak jarri behar dituzte ingurumen arloko informazioa emateko zerbitzua bete dadin, betiere erantzuna emateko baldintza eta epe horien barruan.



Esku artean dugun kasuan, dauden agiriak eman arren, EABJaren irizpenak adierazi zuen horiek eskuratzea erraztu egin behar dela *“antes de que se terminara el plazo legal para realizar alegaciones, en los términos establecidos en la Ley 27/2006, de 18 de julio, y la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración ambiental de Euskadi”*.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Euskadin angularen arrantzaren erregulazioa berrikustea susta dezala, Europar Batasuneko zuzenbidetik eratorritako aingira europarraren populazioa berreskuratzeko eskatzen diren neurrietara egokitzeko. Neurri horien bidez, haren arrantza profesionala ahalik eta gehien mugatu behar da, eta baimendutako harraketak birpopulatzeko neurriak eskatu behar dira.

Angularen arrantza arautzeko neurriak indarrean dagoen EAEko aingira europarraren kudeaketa planaren esparrura egokitu daitezela; eta, eguneratuz gero, neurriak Europako Batzordeari jakinaraz dakizkiola, dagozkion ondorioetarako, 1100/2007 (EE) Erregelamenduaren arabera.

Neurri arautzaileak *ex profeso* egindako irizpen tekniko eta zientifikoetan oinarrituta egon daitezela, hargatik eragotzi gabe aurrez zeuden eraginpeko arrantzale-komunitateen eragin sozioekonomikoa konpentsatzeko beste neurri batzuk kontuan hartzea.

Administrazio onaren printzipioan oinarrituta, erregulazio-neurrien aurretik informazio guztia eskuratzea eta interesa duten elkarte guztiek parte hartzea bultza dadila.